

JOSE MARI SATRUSTEGIREN OMENEZ  
(Pello Urzelai, Andra Mari ikastolako  
lehendakariordea)

Arratsaldeon denori

Lehendabizi, zorionak.

Zorionak Euskaltzaindiako kide guztiei,  
iraganekoei eta oraingoei. Zorionak eta  
esker ona, batez ere 90 urte hauetan  
guztietan, egoera zail eta gogorretan ere,  
egindako lanagatik.

Zorionak jaso beharko lituzkeen artean, gaur  
bereziki omendu nahi dugun euskaltzain bat  
dago, Jose Mari Satrustegi arruazuarra.

Bi hitz baino ez, Jose Mari Satrustegi  
gogoratzen aipamen labur honetan. Bi hitz  
gure seme-alaben hezkuntzaz arduratzen  
garenon ikuspegitik.

Bi hitz: altxorra eta jakintza.

Ezkutuan gordeta zegoen altxorra aurkitzen  
eta ezagutzen lagundu zuen Jose Mari  
Satrustegik, euskal testu zaharren bildumari  
esker. Horien artean, adibide gisa, testu  
bat ekarriko dut gogora ezagutzaren ardatz  
den jakin-minaren bidea erakusten duelakoan.

Iruñeko Sinodoak *Breviarium* bat argitaratu  
zuen 1501ean. "Erdi aldera, 175. orrian  
festaburu eta astegunen egutegia dakar.  
Latinez ezarritako hilen egunak euskarara  
itzuli zituen eskuz norbaitek". Orain arte

ezagutzen den hilen zerrendarik zaharrena da. Aurkikuntza eder hau Satrustegirena da.

Baina Jose Mari Satrustegik ez digu bakarrik hizkuntzaren altxorraren bidea erakutsi. Baita euskara hitz egiten duen jendearena ere, hau da, herri jakintza. Hizkuntza pertsonen sentimendu, ikuskera, sinismen eta esperientziei lotuta.

Satrustegiren Ekaitza nobela da horren adibide argia. Bertatik esaldi labur bat: "Udazkena berez ederra da; neguaren bildurra du txarrena". Esaldi ederra eta egiazkoa, baina aitortu behar dut abagune honetan guk ez diogula beldurrik neguari, baizik eta urriaren 18an eguraldi txarra egiteari. Espero dezagun ederra izatea, udazkena ederra baita.

Mila esker Jose Mari Satrustegiri euskararen alde egindako lan guztiagatik, mila esker hizkuntza eta jakintza uztartzeagatik. Mila esker euskaltzain guztiei. *Ekin eta jarrai.*

Etxarri Aranatzen, 2009ko irailaren 25ean